010-Planaren ingurumen-jarraipenerako aurreikusitako neurriak

ekolur

11. PLANAREN INGURUMEN-JARRAIPENERAKO PROPOSATUTAKO NEURRIAK

Ingurumen Zaintzako Programaren helburuak hauek dira:

1. Sortutako inpaktuaren eboluzioa eta irismena egiaztatzea.
2. Obrak sortutako inpaktua aurreikusitakoa dela egiaztatzea, eta, aurreikusi ez ziren inpaktu posibleak antzematea, beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak aplikatzeko.
3. Neurri zuzentzaileak modu egoki eta eraginkorrean ezarri direla egiaztatzea, eta, nahikoa ez badira, neurri berriak ezartzea.
4. Obraren zuzendaritzari proiektuaren ingurumen aspektuekin aholkatzea.

Usurbilgo udala izango da ingurumen zaintzako kontrolak eta beharrezko txostenak egingo dituena:

- Obra-baimenaren kontrola: Eraikuntza-lanak hasi aurretik Usurbilgo udalean eskatu beharko da obra-baimena.

  Adierazlea: obra-baimena emanda.

- Landaredia babesteko neurrien kontrola: Eraikuntza berriek intereseko habitat komunitarioko eremuak ahalik eta gutxien kaltetzen dutela egiaztatuko da.

  Adierazlea: Intereseko habitat komunitarioko azalera kaltetua.

- Integrazio paisajistikoko neurriak betetzen diren adierazteko kontrola: Espazio publiko eta berdeguneetan planeamenduaren garapenaren eraginez moztutako zuhaitz kopuru bera gutxienez landatzea.

  Adierazlea: Landatutako zuhaitz kopurua.

- Lanen garapenaren kontrola: lanak ingurumen praktika onen arabera eta indarrean dagoen legedia (soberakinak, isurketak, zarata, hautsa, etab.) betez egiten direla egiaztatuko da.

  Adierazlea: Soberako lur eta hondakinen kudeaketa egokia, isurketen falta, zarata arazoen gabezia, etab.

- Eraikuntzen jasangarritasunaren kontrola: Eraikuntza-proeiktuek jasangarritasun energetikorako neurriak aurreikusten dituztela egiaztatuko da, ur kontsumoaren, energia berriztagarrien, argi-instalazioen, hondakinen eta mugikortasunaren eraginkortasunari dagokionez.

  Adierazlea: ur-kontsumo egokia, energia berriztagarrien erabilera, kontsumo txikiko argi-instalazioak, argi-kutsadura gabe, hondakin- eta bizikleta gelak.

- Zarataren kontrola etxebizita-eraikinen inguruan: etxebizitza-eraikinetako fatxadetan eta barrualdean '*A Bizitegi-erabilerako lurzoruak nagusi diren lurralde-esparru edo sektoreak*' motako eremu akustikorako 213/2012 Dekretuak [urriaren 16koak, EAEko hots-kutsadurari buruzkoa] ezarritako kalitate akustikoko helburuak betetzen direla ziurtatzea.

Adierazlea: Etxebizitzetan jasandako zarata maila.

- Lanen bukaera adierazten duen ziurtagiriaren kontrola: Eraikuntza lanak emandako obra-baimenaren arabera egin direla egiaztatuko da. Gainera, lanen eremua ikuskatuko da ingurunearen garbiketa egokia egin dela eta obra-faseko material eta hondakinik bertan geratzen ez dela bermatzeko. Horrez gain, lanetan sortutako hondakinak indarrean dagoen araudia jarraituz kudeatu direla kontrolatuko da.

  Adierazlea: Obra-baimenarekin ados egindako lana, hondakinen falta lanen eremuan eta inguruan, indarrean dagoen araudia jarraituz eginiko hondakinen kudeaketa.